

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **interpelazioa** aurkezten dio **Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburu Gemma Zabaleta Aretari**, Irungo alardearen harira egindako adierazpenen inguruan azalpenak eman ditzan.

ZIOA:

Irungo San Martzial jaietako alardean izan zen Gemma Zabaleta sailburua, berak adierazi zuenez, "Irungo jaien pluraltasunari babesa adieraztera", "jaien adierazpen plurala" delako. Babes politikoa alarde mistoak beharko du, ez baztertzailleak. Izan ere, alarde baztertzailleak emakumeen parte-hartzea oztopatzen du, emakumeek ez baitute berdintasun egoeran parte hartzen. Era horretako adierazpenak egitea gobernutik alarde baztertzaillea legitimatzeko arriskua dute eta ez dute laguntzen berdintasunaren aldeko borrokan.

INTERPELAZIOA:

- Zergatik eman zion Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak babes maila bera alarde baztertzailleari eta alarde mistoari?
- Zein urrats gehigarri emateko asmoa du gobernu berriak Irungo eta Hondarribiko jaietan emakumeek eta gizonezkoek berdintasunean parte hartu dezaten?

Gasteizen, 2009ko uztailaren 7an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea